

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Soziolinguistikaren eremu semantikoa eratzen duten oinarrizko terminoen esanahia ezagutu, eta ezagutza hori hizkuntza-errealitate jakinen interpretazioan aplikatu.	1.1. Kontzeptu soziolinguistikoak eta haien definizioak ezagutzen ditu.
	1.2. Testuetako hutsuneak betetzeko, emaniko soziolinguistikako kontzeptuetatik egokiak hautatzen ditu.
2. Fenomeno baten konponbide proposamenak eta horien kausa posibleak emanik, erlazio semantikoa dutenak hautatu.	2.1. Esplikazio-egitura duen testuan identifikatzen ditu arazoa, arazoaren kausak eta arazoarentzako konponbideak.
	2.2. Emaniko kausa eta ondorioekin eskema grafikoa osatzen du.
3. Emandako euskarrietatik finkatutako komunikazio-asmoaren araberako informazioa hautatu eta adierazi, dagokien egituraren arabera antolatuz.	3.1. Emaniko testuen komunikazio-asmoa hautatzen du eskainitako aukeretatik.
	3.2. Hautua justifikatzeko , emanikoetatik arrazoi eta adibide egokiak hautatzen ditu.
	3.3. Komunikazio-asmoa eta haren isla den eskema grafikoa erlazionatzen ditu.
	3.4. Emandako testuetatik zehaztutako komunikazio-asmo bakoitzerako informazio egokia hautatzen du.
	3.5. Emandako testuetatik hautatutako informazioa egoki adierazten du eskema grafikoa.
4. Elkarlanean ikerketa-plana planifikatu eta gauzatu, norberaren egitekoak arduraz eta eraginkortasunez betez.	4.1. Ikerketaren urrats bakoitzean taldean hartu beharreko erabakietan eraginkortasunez parte hartzen du : bere ideiak eta sentimenduak askatasunez adieraziz, besteenak errespetuz entzunez eta lanari eta gaiari lotuz.
	4.2. Ikerketa burutzeko bere zereginak arduraz betetzen ditu, laguntza behar izan duenean eskatuz eta behar izan duenari eskainiz.
	4.3. Elkarlanerako hartutako konpromisoak betetzen ditu eta kideei haienak betetzen laguntzen die.
5. Hainbat iturrietatik eskuratutako informazioa koherentziaz eta zuzentasunez adierazteko landutako baliabideak (hizkuntzakoak zein grafikokoak) autonomiaz aplikatu, emandako testuetan nahiz norberak sortutakoan.	5.1. Landutako kalko okerren ondorio diren akatsak dituzten esaldiak eta horien baliokide zuzenak emanik, esaldi zuzenak hautatzen ditu.
	5.2. Landutako kalko okerretatik eratorritako akatsak dituzten esaldien baliokide zuzenak idazten ditu.
6. Zuzentasun gramatikala eta ortografikoa aplikatzen ditu ahozko nahiz idatzizko ekoizpenean.	6.1. Ahoz nahiz idatziz ekoizten dituen testuak gramatikalki zuzenak dira.
	6.2. Idatzizko testuetan ortografiari erreparatzen dio eta zuzenketak bideratzen ditu.
7. Ahozko tertulia literarioa eraikitzea helburu duen interakzio egoeran, diskurtso horretarako beharrezkoak diren hizkuntza baliabideak erabili, eta besteek esandakoa bere diskurtsoan integratu hizkuntza baliabide egokiak erabiliz.	7.1. Tertulia literarioetan eraginkortasunez aritzeko gidoi bat prestatzen du.
	7.2. Tertulia literarioa egiten du ikasitako hizkuntza-baliabideak erabiliz.
	7.3. Tertulia literarioa osatzen du kideekiko begirunea adierazten duten esapideak txertatuz.
	7.4. Esaldiak osatzen ditu ideien arteko kausa-ondorio erlazioa edo aurkaritza erlazioa adierazteko testu-antolatzaileak erabiliz.